

IBILBIDEA EGIN AURRETIK ETA ONDOREN BETETZEKO GALDERA-SORTA

- 1. Laidan egin diren lanak ezagutzen dituzu; deskriba itzazu.**
- 2. Hondartzan dunak modu naturalean eratuko lirateke. Zer deritzozu gizakiak haien berreratze-prozesua bizkortzen laguntzeari?**
- 3. Dunan, ingurunera era estuan egokitu diren landare eta animaliak bizi dira. Izenda dezakezu horietatik baten bat?**
- 4. Bazenekien dunen funtzio nagusia itsasoari aurre egin eta hondartzak desagertzea eragozte dela?**
 - BAI
 - EZ
- 5. Hori kontuan hartuta, dunak zaindu eta mantendu behar dira edo, aldiz, ez diozu garrantzirik ematen haiek mantentzeari? Zergatik?**
- 6. Dunak itsasertzeko paisaiaren zati bat dira. Hondartzak edertzen dituztela uste duzu, ala itsustu egiten dituztela? Zergatik?**
- 7. Dunak zaintzeko, beharrezkoa da zenbait arau errespetatzea. Prest al zaude arau horiek errespetatzeko? Zergatik?**